


Noaua!!

www.noaua.com



Senior mailako nesken taldea
osatu da, aspaldiko partez



Erle Egunean

ezti onenak sarituko dira



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

I. CODE
BY IKKS


MAHUKA
arropa denda

etxebeste 3 ☎ 943 361 106

www.behetik.com

**Eskailerak igotzea...
ez da oztopo!**

· plataformak · igogailu bereziak · aulki bereziak...



behetik

Añorga-txiki 14, tel: 943 368 781 eta 671 073 888

I. URRUZOLA
ARROZTEGIA

**Konfiantzazko arotza nahi baduzu,
etor zaitez gurera**

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea



Oria etorbidea 4, behea, LASARTE
(Errekatxo jatetxearen ondoan)

Tel.: 943 371 200 • 610 413 131

Albistea iruditan !!

Munalurraren berrurbanizazioa elkarlanean egin nahi da

Herriarren parte hartzea bultzatzen denean, herritarrek erantzun ohi dutela esan izan da. Hala gertatu zen urriaren 28an Sutegin, Munalurrako bizilagunekin biltzeko Udalak alde aurretik egin zuen deialdian. Udalak auzoko bizilagunei luzatutako gonbitak erantzun zabala izan zuen, Sutegiko auditorioan eserleku huts gutxi geratu ziren eta. Igogailuak, gas instalakuntzak, zuhaitzak edota bideen erabilera, auzotarren intereseko gaiak jorratu zituzten. Bizilagunek gainera hitza hartu ahal izan zuten, argibideak eskatu, kexatu edota proposamenak egiteko. Hitz gutxitan, Munalurraren berrurbanizazioa elkarlanean burutu nahi da.



PASA DEN ASTEAN, SUTEGIN BILDU ZIREN UDAL ORDEZKARIAK ETA BIZILAGUNAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

IGANDEAN, ERLE EGUNA **9. OR.**

KALEZARREKO MOJEN AGURRA **11. OR.**

KULTURALDIA HASIKO DA LASTER **12. OR.**

ZUMARTEK 25 URTE BETE DITU **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
 Tlf 943 37 08 78 USURBIL



txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA



AITOR LANDALUZE

Arrantzan

Txankletak, txanoak eta dagoeneko ahaztuta ditudan bes-telako tresnak hartuta, lagun pare bat joan zaigu Adriatikora, oporretan. Hori bai, lagun pare hau arrantzale amorratuak ditugu, trebeak benetan; eta hemengo arrainekin aspertuta edo, Adriatiko epelera jo dute arrai ikusgarriagoen bila. Itsaso garden bat azaltzen duen postal batean beren oporretako honako bitxikeri hau kontatu didate

Irla txiki batean omen zirela arrantzan. Arroka eder baten gainean eserita, hankak zintzilik, oinak itsas epelean murgilduta eta kanabera eskuan zutela, lasai asko. Eguzkia itsasoan gordetzen ari zen, tenperatura egokia, lehenengo arrantza saioa zuten eta hiru orduz ezer harrapatu ez arren, oraindik amuren batean zer edo zer eroriko zenaren esperantza osorik zuten. Primeran!

Horrela ba, linternak piztuak zituztela bi kanaberen pitak tente jarri eta kolpeka hasi ziren. Biak batera! Noski biak batera, bakoitzak bere kanaberari tira. Ez didate onartuko, baina seguru naiz tentsio eta emozio puntua egon zela zeinek lehenago atera, handiago ... Borroka gogortzen joan zen, Usurbilgo euskara garbian bata besteari laguntza eskean, indarrean, ezinean, eta halako batean, zast! Itsasotik ez zaie ba izurdetzat jo zuten "arrain" bat gainera erori! Susto ederra hartu zuten gure bi lagunek.

Linternen argi-itzal jokoek ez zuten garbi zer zen erakusten, baina "arrai" horren ahotsa entzun zutenean zur eta lur geratu ziren. Haserre hitz egin zien, errieta eginez. Gure bi lagunek oraindik ere ikusten ari zirena sinesten ez zutela, italiera eta ingelaz barkamena eskatzen saiatu ziren. Baina are eta harrituago geratu ziren bere gainean errieta eginez zuten sirenatxoak, Usurbilgo euskara garbiaz erantzun zienean. Amuek egindako minez kexu zen, baimenik gabe bera itsasotik ateratzeagatik. Imajina dezakezuenez errietako arrazoiak bazituen. Sirenatxoak bere errietari bukaera eman zionean, gure lagunek shock egoeratik atera gabe, Adriatikoko sirenatxo batek nolatan Usurbilgo euskara hain ondo egiten duen, galdetu zioten.

Aitaren herentzia zuela, ama sirena zuen eta aita Usurbilgo marinel bat, Joxe Aialde. Gaztetik Cadizko Itsas Eskolatik itsasora abiatu zen abentura bila. 1777an kortsario ibili zen Bereber pirata beldurgarrien atzetik eta 1780an Santo Domingo izeneko itsasontzian Langara jeneralaren agindupean Rodney almirante ingelesaren kontrako itsas batailan hiltzat jo zuten. Orduan ama azaldu, besoetan hartu, itsas barnetik atera eta Cadizko El Palmar hondartza amaigabera eraman zuen, eta ipuinetan bezala ...

Postala bukatzeko usurbildarrontzat muxu bat bidali omen digu sirenatxo horrek.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

"Aldundia" ez da hain ahalduna

Aldundia: ahaldunak biltzen dituen erakundea. Izenak ez du kasu askotan izana islatzen eta hau dugu horietakoa. Ez zait iruditzen erakunde horrek halako izenik merezi duenik 2016rako hondakinei buruz dituen asmoak ikusita.

Garapen Jasangarrirako "ahalduna", Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidente (beste karguren bat mesedez?) den Carlos Ormazabalek diseinatutako planean urte horretarako Gipuzkoan hondakinen %57 birziklatzea jarri du goimuga. Eta hau lorpen ikaragarria bezala saldu nahian dabil. 2002ko lehen planare-

kiko %12ko hobekuntza izan du plan berriak. Hau ere beste lorpen ikaragarria bezala saldu du. Eta kontuan izan baliabide material eta ekonomiko guztien jabe delarik (280 milioi euro, 46.588 milioi pezeta, xahutzeko asmoa dute).

Usurbilgo udalak aldiz, baliabide ekonomiko eta material urriekin, "aldundiaren" laguntza (trabak eta oztopoak izan ez direnean ...) oso oso mugatuekin (ukatu ere egiten zaizkio), 2009ko sei hilabete eskasetan %28ko birziklapen portzentajetik %80tik gora birziklatzera pasa da. Hori bai, giza baliabide eredugarria duela eraku-

tsi du, usurbildarrak. Gauza handia egin dugu benetan.

Usurbilek ahal izan badu, nolaz "aldundia" ez? Ez dago borondaterik, hori da guztia. "Aldundiarena" helburu apala da, baina bere bi interes nagusiak asebetetzen dituen: aurpegia zuritzen dute birziklapen maila "txukun" batera igoaz (benetako ahaleginak egingo ote dituzte hau lortzeko ere?) eta beste aldetik kosta ala kosta jarri nahi duten errauskailurako behar adina erregai ziurtatzen dute.

Jon Mikel Larrañaga,
Usurbil Bizirik

ZUBIAURRENEA 4. USURBIL

leap and

mistoa

943361951

Josue

Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

BORDATXO

edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5

Telf: 943 37 10 42

ARRAINDEGIA

PELLO

Puntapax Kalea, 7

Tlf 36 21 64

USURBIL

Lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza berria hasieraz onartu da

Merkataritzarako baliatu ohi diren lokalak etxebizitza bihurtzeko araudia hasieraz onartu berri du udalbatzak, urriaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Indarrean jarri nahi den udal ordenantza berriak, aurrekoa, 2005az geroztik hiru urtetarako atera zena ordezkatzuko du. Araudi berriak bi eremu babestu nahi ditu; saltokiak nagusi diren kaxkoa edota Zubietako frontoi ingurua.

Hasierako onarpena eman ondoren, orain alegazioen epea dator. 30 lane-gunez jendaurrean ikusgai jarriko da proposamena. Inork erreklamaziorik aurkeztzen ez badu, araudi berria behin betirako onartutzat joko da.

Udal ordenantza, egokitzapenei irekia

Gobernu taldeak gaur egungo egoerara egokitua dagoen ordenantza gisa

mahai gaineratu zuen bozketan jarri zen egitasmoa. Alkarbidetik Salome Portuk garaje edo trastelekuak aipatu zituen, ordenantzatik kanpo geldituko direlakoan, etxebizitza kalifikazioa jaso ezingo dutelakoan. Halere, herritarren alegazioak ikusi zain geratzeko zirela gaineratu zuen. Arazorik ez izateko araudia berregokitu beharko dela erantzun zitzaion gobernu taldetik. Halako egoera partikularrei, udal mailako adostasuna emateko konpromisoa hartzeko prestutasuna agertu zuen alkateak.

23 eskaera onartu

Hirugarren sektorera, zerbitzuen alorretara baliatutako lokalak etxebizitza bihurtzeko hiru urtez indarrean egon zen aurreko udal ordenantza kontuan izanik, 38 eskaera aurkeztu dituzte herritarrek. 23 eskaeren erabilera aldaketa prozesuak martxan dira. 21ek obretarako baimena dute, eta



AURREKO ARAUDIAREKIN, ETXE HAUETAKO LOKALAK ETXEBIZITZA BILAKATU ZIREN.

hamazazpik etxebizitza berriaren lehen erabilera baimena.

Beste hiru eskariri ere baiezko erantzuna eman zaion arren, Udaletik jakinarazten dutenez, aipatu prozesua kasu hauetan ez da abiatu. Batek gainera, proiektua udal araudia indargabetua zegoenean aurkeztu zuen. Ezezko erantzuna jaso duten gainerako hamabi eskarien kasuan, interesdun herritarrek bertan behera utzi dituzte edota aldaketa ukatu zaie.

Ika-mika

2003ko otsailaren 20an Egunkaria itxi eta 10 lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan Del Olmo epaileak aginduta. Urte bereko urrian beste 9 lagun atxilotu zituzten. Guztira 25 lagun pasa dira Juan Del Olmo epailearen aurretik; egun 10 lagun daude auzipetuta (...).

Juan del Olmo epaileak 1993. urtean ustez ETArri atzemandako paper batzuk hartu zituen oinarri Egunkariaren kontrako salaketa egiteko. Hamar urte horietan (1993-2003) Espainiako Auzitegi Nazionaleko hainbat epailek, tartean Baltasar Garzonek, ezagutu zituzten Guardia Zibilak aurkeztutako dokumentu horiek, baina ez zuten salaketa egiteko oinarriarik ikusi.

Fiskalak ere sobreseimendua eskatu du behin eta berriz, bere ustez ez baitago salaketa egiteko oinarriarik. Ahozko epaiketa egingo dela jakinarazteko 2009ko uztaile-

an kaleratutako autoan, Fiskalak berak sobreseimendu eskaria berretsi bakarrik ez, maila igo eta behinbetiko sobreseimendua eskatu zuen.

Bultzada politikoa dago Egunkaria kasuaren atzean. Egoera politikoa aldaketak egon dira duela sei urtetik gaur egunera. Madrilen orduan agintean zeudenak eta gaurkoak ez dira berak. Ez, baina 2000. urteko lehen bosturteko hartan egosten jarritako eltzea inork ez du surtatik atera.

Euskara sustatzea delitua da. Zergatik daude auzipetuak akusatuen aulkian? Euskara sustatu izanaren errudun, euskal kultura sutsuki sustatu izanaren errudun... bai.

Babes zabala jaso dute urte guzti hauetan. Egunkaria kasuaren artxiboa, epailetarik ez! esan dute milaka lagunek urte guzti hauetan. Erakundeak ere egin dute eskari hori: Europako Parlamentuko hain-

bat parlamentarik, Batzar Nagusiek, Eusko Jaurlaritzak hiruzpalau bider, Espainiako Erresumako Gorteetako 61 diputatu eta senatorek...

Akusatuena aulkian eseri beharko dute, hala ere, Egunkaria kasuko auzipetuek. Prebisorik txarrenak bete dira, azkenera arte. Hori horrela izanik, oso litekeena da sententzia kondenatoriorien bat egotea.

Epaiketari begira, ahaleginak indarberritzeko deia egiten dugu. Erne egon beharra daukagu hipotesirik okerrenak gauzatu ez daitezen, orain arte bezala. Euskal gizarte zabalaren aldarria azaltzeak ez dakigu eraginik izango duen Auzitegi Nazionalen, baina aldarri hori ez azaltzeak ziur izango duela.

Guzti honen aurrean, Usurbilen ere babes taldea lanean hasia da, beraz adi izango diren deialdietara.

Usurbilgo Egunkaria Libre Babestaldea

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Azkenean!!



Duela urtebete inguru gaur bezalako momentu batean Kalezar auzoaren azpiko errepide nagusiaren inguruan idatzi nuen kronika. Izan ere izugarrizko arriskua ikusten bainuen hor gerta zitekeenaren eta ondorioz gertatu zenaren inguruan. Egunero errepide hori jende askok zeharkatzen zuela ikusita eta autobusak ere hor geltokia zuela ikusita, hor zerbait egin behar zela proposatu nuen: alde batetik zebra bidea jartzea eta bestetik abiadura 50 km-tara murriztea. Hala ere ez nekien posible izango ote zen errepide nagusian horrelako zerbait egitea, baina Aginaga auzoan antzeko zerbait zegoela ikusita ez zitzaidan ezinezkoa iruditzen. Ba beno ez dakit zerbaiteko balio izan zuen nik esandakoak, baina behintzat konponbidea eman zaio egoerari!

Bestalde errepide horretan dagoen paradaren eta auzora igotzeko dauden eskilaren inguruan ere aipamen bat egin nahi nuke. Donostialdera joateko dagoen paradan aldaketaren bat egingo nuke, izan ere autobusak ez baitu ikusten hor bateren bat zain badagoen. Eta beste aldekoan ere aldaketaren bat egingo nukeela esan beharrik ez daukat, para-



da horrek duen egoera oso kaxkarra baita.

Hau guztia esanik auzoaldera doazen eskilaretan ere garbiketaren bat ez legote gaizki, jende askok erabiltzen baititu eta sarritan nahiko zikinak egoten baitira.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Igandean Erle Eguna



Etorri zaigu jada gainera azaroa, konturatzerako negu betean sartuak gara. Pasa den igandean, izan da hil honetan urtero ospatzen den Artisautza Azoka eta arrakastatsua izan denaren informazioa jaso dut, ez baitnaiz bertan izan. Eguraldi aparta eta giro ezin hobea... Hurrengo iganderako ere honelako giroa erreserbatua dugu eta ia portatzen den ba!!!

Goiz goizetik urtero legez izango ditugu Gozogintza Lehiaketa herrikoia eta XI. Ezti Lehiaketa. Guztioi animatu nahi dizuet Gozogintza Lehiaketan parte hartzera. Urtez urte jendearen izenematea igotzen joaten da eta geroz eta maila handiagoarekin gainera, sekulako aurkezpena eta zapore izugarria duten produktuekin. Aurten ere, postuak hor izango ditugu beraien produktuekin eta festa giroa ez da faltako. Askatasuna plazan, Porrotx pailazoa egongo da yogurta eztiarekin banatzen umeen eromenerako eta bertan ere Udarregi ikastolako Marrazki Lehiaketarako marrazkiak izango dira ikusgai. Beraz, zeregina eta zerikusia izango dugu igande honetan ere gure herri honetan. Azaroaren 8an herriko plazara agertzeko gonbita egiten dizuet guztiei, beste behin ere esango dute Usurbilen beti dagoela zerbait. Ondo segi eta hurrengorarte.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Arimen eguna berreskuratzen?

Asteburu honetan Halloween festaren berri izan dugu, gehiago edo gutxiago munduko bazter guztietara zabaldu den kultura amerikarra, Estatu Batuetakoa alegia. Gurean ere ibili dira hainbat gaztetxo larunbat gauean munstroez jantzita susto ederrak emanez. Baina nondik dator moda bitxi hau?



Oier Araolaza, kazetari eta antropologo elgoibartarrak duela bi urte argitaratutako artikulu bat irakurri berri dut eta bertan Halloween jatorriz Europako festa bat dela argitzen du, baita Euskal Herrikoa ere. Europako etorkinek eraman zuten festa hau Ameriketara eta hemen ahultzen joan zen neurrian joan zen han sendotzen. Euskal Herrian ez zaio inoiz Halloween deitu, Arimen eguna baizik. Arimen egunean ohitura zaharra zen tabernan mozkortu arte edaten aritzea; baita kaleko neska-mutilak elkarrekin baserrietan gaztaina erreak jatea. Baratzetik kalabazak lapurtu, hustu eta barruan kandelak jarrita kaleetan, atarietan ere jartzen omen zituzten.

Beraz, asteburu honetan beldurra zabaltzen ibili diren gaztetxoek aintzinako ohitura berreskuratzeke ibili ote dira? Batek daki...

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Auzoko taldeak lanean gogor



2009. urte hau ere badoakigu aurretantz. Egunak hasi zaizkigu motzago izaten, gauetan giro frexkoagoa izaten dugu... Aginagako jaiak ere atzean utzi ditugu dagoeneko, Jai Batzordeak balorazio positiboa egin du aurtengo jaien inguruan.

Orokorrean guztia ondo atera baitzen eta jendeak ere ez zuen huts egin. Eguraldia ere lagun izan genuen eta ezin kexatu!! Baina jaiak amaitu badira ere, Jai Batzordeak lanean dihardu. Eta urtea amaitu aurretik, beste ekintza bat edo beste gauzatzeko ideiarekin dabilta. Honen inguruko informazio gehiagorekin hurrengoan etorriko natzaizue.

Jai batzordeaz gain, Antxomolantxa auzo elkartekoak ere, lan eta lan dihardute eta honen erakusgarri antolatu dituzten zenbait ikastaro. Oraingoan Pilates ikastaroa antolatu dute. Astean behin izango da ikastaro hau, astelehenetan, gaueko 20:00etatik 21:00etara izango da eta ludotekan emango da. Hilabetea 25 euroko prezioa izango du. Interesatuak 650692458 zenbakira deitu behar duzue izena emateko.



Azkenik, lan kontuekin amaitzeko, aipatzekoa da udalaren lana ere. Izan ere, aurreko astean espaloietan eta errepi-de ondoan zeuden hainbat zulo estaltzen ibili baitziren.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Agur bero bat guztioi!



Konturatzerako uda atzean utzi eta udazkenean sartuak gara dagoeneko eta horretarako Andatza alderuntz begiratu besterik ez dago; zuhaitzak udazken tonu ezberdinez jantziak ditugu eta.

Mugimendu dexente izan ohi da abendua bitartean gurean. Azken asteko hego haizeak direla eta goizean goizetik ehiztarien eskopeta hotsa entzutea ohikoa bihurtzen da urte garai honetan. Ehizatzeaz gain, perretxikuak biltzera ere jende dezente animatu ohi da eta hain apreziatuak ditugun onddoak xestoratzeko aukerarik ez duenak, gaztainak biltzeko aukera izaten du gutxienez.

Horrez gain, inguruko baserritarrek ere sagar bilketan ibiliak ditugu eta haien hitzetan aurtengoa ez omen da "sagar urtea" izan. Beraz, inguruko sagardotegiak beste herrialdetara jo behar izan dute sagar bila.

Bestalde, auzoan eta parke inguruan zakarrontzirik gabe jarraitzen dugula aipatu beharrean aurkitzen naiz. Izan ere, mahai inguruak lata, tabako pakete... Beteak aurkitzea ohikoa suertatzen baita sarri.

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Neguko martxa

Euria hasi du eta oraindik ez dugu Earto guztia bildu. Umeek nagia ezin astindu ibiltzen dira eskolarako bidean. Gu horrela ibiliko gara laster Bilbo aldean, orain 7 urte itxitako Egunkariaren alde aldarrian. Orduko haserre berritza dator oraingo epaiketara. Eta guk bidegabea dela esango dugu berriro ere.

Argitu orduko iluna, asteotako eguna. Hotza eta hezea uxatzeko ditugu pilatuta nahiko egur ihar soto eta ganbaratan. Baina ez ditugu su guztiak maite. Berotuko ez digun surik ez dugu nahi. Esan egin beharko dugu laster Donostian. Beste behin ere errauskailuaren aurka bidea egin beharko dugu elkarrekin hilaren 28an.

Ez da dena kexa eta protesta. Ez da oso urruti Durangoko festa. Urtero joaten gara. Beharbada ez dugu liburu asko ekarriko bueltan baina gustuko eguna izaten dugu... Eta gaztaina jatea egin beharko dugu...

Hau lana, egutegia gorritz margotzen. Ezer ez eta festa. Festa eta protesta.



Eguneko Zentroaren kudeaketa kontratua urtebetez luzatu da

Udala eta GSR enpresak Eguneko Zentroa erabili eta kudeatzeko sinatua duten kontratua beste urtebetez luzatuko da, datorren azaroaren 17tik 2010eko azaroaren 16ra arte hain zuzen. Hala erabaki zen udalbatzaren azken osoko bilkuran.

Erabilpen prezioak ere egokitu egingo dira, KPIa kontuan izanda. Oraingoz indarrean diren erabilpen prezioak honakoak dira, erabiltzaile eta egun bakoitzeko: astelehenetik ostiralera, 45,98 euro. Larunbat eta igandetan aldez, 48,35 euro.

Egun indarrean dauden tarifen alde azaldu zen Aralar

Prezioa izan zuen hizpide Aralarrek. Egun, indarrean dauden tarifen alde agertu zen Joxe Ramon Furundarena. Bere esanetan, ez zuten ontzat jotzen KPI negatiboa bada indarrean den



AZKEN OSOKO BILKURAN ONARTU ZEN UDALA ETA GSR KOOPERATIBAREN ARTEKO KONTRATUAREN LUZATZEA.

prezioari aplikatzea. EAJ-PNVtik Iñaki Illarramendik planteamendu bera egin zuen.

Bozketan, udal gobernu proposamena onartu zen

Azkenean, bozketa garaian Aralar proposamenaren aurka agertu zen, abstentziora jo zuen aldez Alkarbide udal taldeak. Gainerakoak gobernu taldearen proposamenaren alde agertu ziren.

Udal ondasunen inbentarioan, aldaketa

Potxoenearen udal ondasunen inbentarioko 117. fitxa hasieraz aldatzea onartu zuen udalbatzak, hilabete amaierako osoko ohiko bilkuran. Gaia mahai gainean uzteko Alkarbidetik egindako eskaerak ez zuen aurrera egin eta honela geratu zen bozketa: gobernu taldea alde, EAJ-PNV eta Alkarbide aurka, Aralar eta PSE-EE abstentituta. Txertatutako aldaketa jendaurrean hilabetez ikusgai egongo da orain.

2008ko Kontu Orokorra, behin betirako onartua

Behin betirako onartu zuen Udalbatzak 2008ko Kontu Orokorra, pasa den urriaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Ez ordea aho batez, Aralarke zinegotziek abstentziora jo baitzuten eta EAJ-PNV zein Alkarbidetako zinegotziek aurka bozkatu zuten eta. Jendaurrean erakusgai egon den tartean, ez du inork alegaziorik aurkeztu.

Azken atxiloketak, osoko bilkuran hizpide

Ezker Abertzaleko atxilotuei elkartasuna adierazi eta berehala aske uzteko eskaera plazaratzen du, urriaren 13ko azken polizia operazioaren haritik hilabete amaierako osoko ohiko bilkuran aurkeztu eta onartu zen mozioak. Alderdien Legea berehala indargabetzea galdegitearekin batera, erakunde politiko, sozial eta komunikabideen aurka irekita dauden prozesuetan gutxieneko berme juridikorik gabe dauden ehunka herritarrei elkartasuna adierazten zaie.

Udal taldeen balorazioak

Mozioan aipatzen denez, gatazkari irtenbide demokratikoa bilatzeko konpromisoa berresten da, espainiar estatutaren jardunbide demokratiko, autoritario eta errepresiboak salatzeaz gain.

Mozioa, gobernu taldearen eta

Aralarren babesa jasota onartu zen. Nahiz Aralarrek aparteko testua ere irakurri zuen bilkuran bertan. Politika egitea delitua izan ezin daitekeela eta, gogor salatu zuten operazio poliziala. Urratutako eskubide zibil eta politikoen aldeko atxikipena agertzearekin batera, espainiar estatutak hautatutako bidea deitoratu zuten. Atxiloketok salatutako Donostian antolatutako manifestaldiaren buruan ageri zen leloarekin ere bat egin zuten: "Askatasunaren alde, esku-bide guztiak guztientzat".

Aldarri beraren alde agertu ziren Alkarbide udal taldeko kideak ere. Irakurri zuten testuan, Alderdi Politikoen Legea derogatzea eskatu eta elkarritzeta eta bide politikoen aldeko apustua egiten zuten, inposaketa eta indarkeriarik gabeko ideien askatasuna

eta egitasmo politiko desberdinen aniztasuna defendatzeaz gain. EAJ-PNVko zinegotzi Iñaki Illarramendik ere konponbide elkarritzetatuaren aurkako operazio polizial gisa definitu zuen pasa den urriaren 13an jazotakoa. Atxiloketak arbuiatzearekin batera, denek baldintza berdinetan duten politikarako eskubidea aldarrikatu zuen, baita gizarteak duen erabakitze eskubidea ere.

Ramon Uribe Salamancara eraman dute

Ramon Uribe euskal preso duela bi aste Topaseko kartzelara (Salamanca) eraman zuten. 2000 urtean, Langraizko kartzelara hurbildu zuten, baina orain Topaseko kartzelara eraman dute, Usurbildik 445 kilometrora.

Igandean, Erle Eguna

Urteko hitzordurik gozoena ate joka dugu; igande honetan, azaroak 8, ospatuko da eta Erle Eguna. Antolatzaileek bertaratzeko gonbita luzatzen dute, eta ahal bada, baita eguraldi ona lagun izatea ere.

Giro gozoa nagusituko da berriz ere Dema Plazan eta frontoian, azaroaren 8an ospatuko den XI. Erle Egunarekin. Hitzaren zentzurik zabalenean, jaialdiak gozoa izateko osagai nagusi guztiak izango ditu; postuetako produktuak, lehiaketak, erleak lanean, Porrotx pailazoa... Eta noski, pilotaleku inguruetara hurbilduko diren herritarrak. Antolatzaileek bertaratzeko gonbita luzatua dute jada.

Epaimahaia, ezaguna

Berrogeitik gora postuetatik osteratxo egin ahal izango da; besteak beste, argizari eta eztiarekin egindako produktuak, gozogintza, artisauak... bisitatzeko aukera izango da. Tartean, Udarregi ikastolako ikasleak ikasturte amaierako bidaiarako laguntza jasotzeko postua ere jartzekotan dira.

Epaimahaian hainbat herritar egongo dira eta haiekin ohi denez, aurpegi ezagunak; Herri Irratiko Juanjo Mendioroz, Esther Esparza aktorea, Pedro Subijana edota Juanjo Arbelaiz sukaldariak...

Ezti lehiaketetan parte hartzeko deia

Jaia hasi baino bi ordu lehenago agertu beharko dute, ezti eta gozogintzako lehiaketetan parte hartu nahi dutenek. Goizeko 9:00-10:00ak artean bilduko dira lehiakideen lanak frontoian. Eta adi, Euskal Herriko ezti lehiaketan, elizako kanpandorretik erle batek hegan ekarri ohi dituen sariei dagokienean, nobedadeak izango dira eta. Bi ez, hiru modalitatetan egituratu dute aurtengo lehiaketa: hala, ezti poto ilun, argi eta milaloreko onenak aukeratuko dituzte.

Antolatzaileek herritarrak parte hartzera deitzen dituzte. Helduentzat



ERLE EGUNEAN, URTERO BEZALA, BIZIRIK DAUDEN ERLEAK ERE EZ DIRA FALTAKO.

bakarrrik ez, 3-11 urte arteko ikasleak azken egunotan erleari lotutako marrazkiak prestatzen aritu dira. Erle Egunean onenak ezti poto banarekin sarituko dituzte, goiz osoan zehar ikusgai egon ostean.

Eguna giro eta bazkari eder baten bueltan amaitu nahi duenak, antolatzaileek urteroko hitzorduari eutsi diote, hamaikagarren edizio honetan ere. Aginaga sagardotegian bazkaria izango da. Nahi duenak, 24 euroren truke egunean bertan frontoian eskura dezake txartela.

Egitaraua

09:00-10:00 Ezti eta gozogintzako lehiaketetako produktuen bilketa.

11:00-14:00 Erakusketa (erleak, argizaria, panelak...), postuetako salmenta, musika, bertsolariak, marrazki lehiaketa...

13:30 Erleek beraiek ekarritako sari banaketa. Ezti sarituen enkantea.

14:30 Aginaga sagardotegian bazkaria (txartelak salgai egunean bertan 24 eur otan).

Yogurt eztiarekin banatuko du Porrotx pailazoak

Urtero bezala, Porrotx Erle Eguneko jai girora hurbilduko da. Ez esku hutsik gainera, eta irribarre gozo batekin ahoan.

Besarkada goxoak emateaz gain, eskutan produktu gozo askorekin hurbilduko da gaztetxo eta helduengana. Txokolate eta yogurta banatuko ditu, goizean zehar. Irri eginarazi eta opariak banatzera dator beraz.



JENDEA ERRUZ HURBILDUKO ZAIO PORROTX PAILAZOARI.

Esne makinarako ontzi gehiago, laster eskuragarri

Kiroldegi ondoan jarrita dagoen esne makinak harrera ezin hobea izan du herritarren artean. 1.092 esne ontzi banatu dira guztira, aipatu gunean bertan, Udarregi ikastolan eta Alkartasuna baserritarren kooperatiban. Aurrera begira, ontzi gehiago jaso ahal izango dira, ez ordea derrigorrez. Etxean izan ditzakegun bestelako litro bateko plastikozko zein beirazko ontziek ere funtzio bera bete dezakete eta.

130 litrotik 150 litro kopurua gainditzeraino egun gutxitan. Herritar ugari hurbildu da duela aste gutxitik Oiardo kiroldegi ondoan Behemendik eta Udalak elkarlanean bultzatuta kokatua dagoen esne makina. Egitasmoko eragileek balorazio erabat baikorra egiten dute, baita kiroldegian eskura litekeen esnea ekoizten duten Iarbe baserrikoek ere.

Ontzi gehiago, laster

Ezin ahaztu, produktua herrian bertan ekoitzia dagoela, bermatutako kalitatearekin. Eta salerosketa bitartekaririk gabekoa, hau da, ekoizle eta kontsumitzaileen artekoa dela gaineratu behar, horrek ingurugiroari begira, dakartzan



HALA ERE, LITRO BATEKO BESTE EDOZEIN BEIRA EDO PLASTIKOZKO ONTZI BALIO DEZAKE.

onurekin; besteak beste, garraio beharrik izan ez edota egitasmo honi esker eskuragarri dauden ontziak berrerabilgarriak baitira.

Herritarrek poto eske ari dira. Laster, ontzi gehiago erosteko aukera egongo da. Euro baten truke, honako leketan; Alkartasuna baserritarren kooperatiban, Oiardo kiroldegiko tabernan edota makinan bertan.

Ordutegi-txartelaren premia

Halere, ez dago zertan orain arte banatu diren ontziak eskuratzeko zain

egon beharrik. Litro bateko beste edozein beira edo plastikozko ontziek ere balio dezakete. Egitasmo honen eragileek azaldu dutenez, ontzira ailegatu baino lehen desinfektatzen da eta esnea. Beraz, aipatu bezala berdin dio zein ontzi erabili esnea jasotzeko. Ordutegiari dagokionez, orain arte bezala goizetik iluntzera arte zabalik egongo da kiroldegi ondoko esne makina. Laster, eragileek ordutegia zehaztuko dute eta makinan bertan txartel bat jarriko dute irekita izango den ordutegiarekin.

Martxan da berdintasunerako udal plana

Berdintasunaren Udal Plana Bosatze bidean, kultur eta kirol arloko sustatzaileen balorazioak bildu dira dagoeneko. Ongizate eta hezkuntza arloko bilerak datorren astean egingo dira.

Ongizatea, Gizarte Zerbitzuak
-Zer hobetu emakume, adineko edota bazterketa egoeran dauden behar eta aukerei erantzuteko?

Noiz: Azaroak 10 asteartea, 17:30ean, Artzabalena.



KULTUR ARLOKO BILERA AURREKO ASTEAN EGIN ZEN.

Hezkuntza arloa

Noiz: Azaroak 17 asteartea, 18:00etan, Udarregi ikastolan.

Kontsumo kooperatibari buruzko bilera azaroaren 9an egingo da

Herrian ekoizten diren produktuak bultzatu asmoz Udalak abian jarri nahi duen egitasmoa aurkezteko bilera irekia deitua zegoen, asteazken honetarako, azaroaren 4rako. Hitzordua bost egunez atzeratu dute. Datorren astelehenean, hilak 9 burutuko da, Artzabalgo zaharren egoitzan, 19:00etatik aurrera. Antolatzaileek parte hartzea bultzatu nahi dutenez, herritar eta baserritarrei bertaartzeko dei egiten zaie.

Kalezarreko mojek eskerrak eman nahi dizkiete usurbildarrei

Kalezarreko mojak joan egin dira herritik. Euren etxea izan dena, zahar egoitza berrian bilakatuko da. Egokitze-lanak iraun bitartean, herritik kanpo izango dira. Gauza bitxia. Izan ere, azken 100 urteotan Kalezarreko bizi-lagunak izan dira. Zahar egoitza berria martxan jartzen dutenean, ordea, monjek toki bat izango dute bertan, eta berriz itzuliko dira. Seroren etxeko zuzendari Maria Jesus Amundarainek NOAUA!ri igorritako gutun baten bidez, eskerrak eman nahi dizkie usurbildar denei.

“Moja hauek lehenbizi Bordeletik Elgoibarrera etorri omen ziren, Frantziar Iraultza medio, eta ondoren etorri omen ziren gurera, 1905 urte inguruan Casa Miravalles delakora”. Hala zioen urriaren 9ko NOAUA!n Maider Makazagak, Kalezarreko gure kronistak.

Ikastetxe izandakoa

Urteetan, ikastetxe izan zen. Usurbildar askok ikasi zuten mojetan. “Oso zorrotzak omen ziren moja hauek baina ongi prestatuak atera-



GUTUNAREKIN BATERA, ARGAZKI HAU EKARRI DIGUTE KALEZARREKO MOJEK
NOAUA!KO ERREDAKZIDORA.

tzen ziren bertatik pasatakoak”, zioen Maiderrek kronikan.

Matia Fundazioaren esku

Gizakia Helburu taldearen egoitza ere izan zen azken urteotan. Konbentu hau, ordea, azken aldian erretiroko etxe gisa egon da.

Laster, Matia Fundazioaren zahar egoitzan bilakatuko da orain gutxi arte mojen konbentua izandakoa. Mopak, aldi baterako bada ere, hemendik badoaz eurentzat etxetxoia egiten den bitartean. Ondoren, erresidentzia berria bukatzen dutenean, itzultzeko aukera izango dute.

“Eskerrik asko eta agur!”

Urte asko dira, ehun inguru, Usurbilgo herrian, “kalexarreko monjak” –hala deitzen zeniguten– zuekin gure bizitza konpartitu dugula. Orain bagoaz; ez dugu agurtzeko “ospakizunik” egin nahi izan, gogorregia izango zela pentsatuz. Aldizkari honen bidez esaten dizuegu eskerrik asko eta laster arte. Zaharren egoitza berria egiten

dutenean izango omen da gure elkarte batentzat lekua; itxaropen horrekin goaz sakabanatu gaituzten lekuetara, baina Usurbil ondo gogotan eta, batez ere, bihotzean daramagu; onartuak eta estimatuak izan gara eta guk ere maite dugu Usurbilgo herria eta herritarrak.

Badakigu hitzak ahulak gelditzen direla barru-barruko sentimenduak

agertu nahi ditugunean baina oraingoz hau daukagu bide bakarra.

Eskerrik asko, usurbildar guztioi eta gure adiskidetasuna eta gure otoitzaren laguntza eskaintzen dizuegu. Agur!

Elkarte osoaren izenean,

Maria Jesus Amundarain

Gure historiaren lekuko apartak

Asteartean aurkeztuko da “Usurbilgo ondarea ezagutzen” liburua

Azaroa izan ohi da kultur ekitaldi gehien eskaintzen dituen hilabetea. NOAUA! Kultur Elkartek antolatzen duen Kulturaldiari esker, neurri handi batean. Datorren astean, hitzordu interesgarriak izango ditugu aukeran. Nabarmentzekoa, ordea, azken urte honetan mamitu den liburuaren aurkezpena: “Usurbilgo ondarea ezagutzen” izeneko inbentario modukoa. Usurbilgo historiaren lekuko apartak biltzen dituen argitalpena.


